

**Larraintzarko**  
IKASTETXEA

## URTEKO PROGRAMAZIOA


<b>IKASTURTEA</b>	2019/2020	<b>IRAKASLEA</b>	Alaia Etayo
<b>MAILA</b>	DBH 4	<b>ARLOA</b>	Plastika

### HELBURUAK, OINARRIZKO GAITASUNAK, EDUKIAK, EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

24/2015 FORU DEKRETUA, apirilaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculumaz ezartzen duena.  
[http://www.navarra.es/home\\_eu/Actualidad/BON/Boletines/2015/127/Anuncio-0/](http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2015/127/Anuncio-0/)

### HELBURUAK

1. Natur eta kultur inguruneak irudiak behatzea, hautematea, ulertzea eta modu kritikoan interpretatzea, eta haien ezaugarri plastiko, estetiko eta funtzionalekiko sentikorra izatea.
2. Balio kulturalak eta estetikoak estimatzea; haien edukiak identifikatu, interpretatu eta baloratu; kultur aniztasunaren zatiak direla ulertzea eta, ondorioz, haiek errespetatzen, zaintzen eta hobetzen laguntzea.
3. Hizkuntza plastikoak eta ikusizkoak bestelako hizkuntza motekin dituzten harremanak ulertzea eta adierazpen formularik egokiena hautatzea komunikazio beharren arabera.
4. Hizkuntza plastikoaren eta ikus-hizkuntzaren tresnak erabiliz gauzak sormenez adieraztea eta beste jakintza-arlo batzuekin harremanetan jartzen jakitea.
5. Emozioak eta sentimenduak, bizipenak eta ideiak adierazteko hizkuntza plastikoa erabiltzea eta horren bitartez komunikazioa, hausnarketa kritikoa eta pertsonen arteko errespetua sustatzea.
6. Teknika plastiko eta ikus-teknika desberdinak erabiltzea, baita informazioaren eta komunikazioaren teknologia ere, norberaren sortze lanean.
7. Gorputz eta eremu sinpleak irudikatzea, perspektiba, proportzioak eta azalaren ezaugarrien eta xehetasunen irudikapena erabiliz, komunikaziorako eraginkorrak izateko moduan.
8. Bakarka eta taldean, aurrez ezarritako helburuetatik abiatuta objektu bat egiteko prozesuari buruz gogoeta egitea, eta fase bakoitzaren amaieran lanaren egoera berrikusi eta baloratzea.



**Larraintzarko**  
IKASTETXEA

## URTEKO PROGRAMAZIOA

9. Taldeko jardueretan malgutasunez eta arduraz parte hartuz beste pertsona batzuekin harremanetan jartzea eta elkarrizketa, lankidetzeta eta komunikazioa erraztea.

### ONARRIZKO GAITASUNAK

x	HIZKUNTZA KOMUNIKAZIOA		GAITASUN SOZIAL ETA ZIBIKOAK
	MATEMATIKA GAITASUNA ETA ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAKO ONARRIZKO GAITASUNAK	x	EKIMENA ETA EKINTZAILTZA
x	GAITASUN DIGITALA	x	KONTZIENTZIA ETA ADIERAZPEN KULTURALAK
x	IKASTEN IKASTEA		

### EDUKIEN DENBORALIZAZIOA


1. ebaluazioa	1. irudi digitala 2. Argazkigintza
2. ebaluazioa	3. Grabatua 4. Diseinu grafikoa
3. ebaluazioa	5. Perspektiba konikoa 6. interpretazioa

### KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

- Jarrerak %20
- Gelako lanak %80 (Lan guztiek ez dute berdin kontatzen)
- Irakasleak beharrezkoa ikusi ezker, azterketa egingo du edukiak barneratzeko (kasu honetan azterketak %20ren balioa izango du, jarrerak %20a eta lanak %60a)

Kalifikapena 0tik 10era doan eskalaren araberakoa izanen da, Kalifikapen negatiboa 5etik beherakoa izanik. Kalifikapena zenbaki osoz adierazi behar denez nota borobiltzeko orduan jarrerari emango diogu garrantzi gehien.

Lanetan eta azterketan gutxienez 3,5eko nota beharko duzu batezbestekoa egiteko. Baina ADII! jarrerako atalean gutxienez 5ekoa lortu beharko duzu. Horrela ez izatekotan ebaluaketa ez duzu gaitutuko.



**Larraintzarko**  
IKASTETXEA

## URTEKO PROGRAMAZIOA

### BERRESKURAPEN SISTEMA

#### Ebaluazioa gainditzeko:

Lanak: berregin akatsak zuzenduta eta epe baten buruan eman. Gehienez 5eko nota lortu ahal da.

-**Ohiko deialdian** gainditzen ez baduzue, Ohiz Kanpoko Azterketa egin beharko duzue. Honetan, azterketa egiteaz aparte, irakasleak errekupeatzeko emandako ariketak eginda emanen dituzue.

Azken nota honela sortuko da:

%70 kurtsoan egindako lanen nota eta %30 azterketaren nota, beraz, lanen eta azterketaren batez bestekoa. Beti ere atal bakoitza gainditu bada.

**Ohiz kanpoko deialdian** nahitaezkoa da azterketara aurkeztea eta lanak eginak ekartzea..

### BESTELAKOAK: baliabideak, metodologia, aniztasuna

#### Lanak:

Arte-lan ugari egingo ditugu ikasturtean zehar. Aurkezpen arauak, txukuntasuna, edukien kalitatea eta hizkuntzaren zuzentasuna (hiztegia, ortografia, adierazpena, sinbologia espezifikokoaren erabilera...) baloratuko dira. Lan hauek ez badituzu aurkezten ezingo duzu ikasgaia gainditu. **Berandu entregaturiko lanak ez dira jasoko. Hauek berreskuratzeko epea aste batekoa da eta gehienez ere 5eko nota jasoko duzu.**

#### Jarrera:

- Ikaskideekikoa: elkar laguntzea, errespetatzea...
- Klaseko giroarekikoa: klaseak ez oztopatzea, parte hartzea, hitz egiteko txandak errespetatzea....
- Zuen materialerikoa: materiala ekartzen ez baduzu saioa galdu dezakezu beraz baloratuko da.
- Gelako materialarekikoa, denona baita. Materialak egokiro erabili beharko ditugu eta zaindu behar ditugu.
- Lanak bukatzean lanpostua txukun uzteai (materiala jaso, aulkiak mahai gainean, dena garbi...)
- Lanarekikoa. Lanean jardun behar da gelan eta bukatzeko denborarik ez badago etxean amaitu beharko duzu lana. Klasetik kanpo ekarritakoa ez da berdin baloratuko.

#### **Gelara ekarri behar den materiala**

Karpeta arrunta:

- Karpeta arrunt bat ekarriko da.
- Irakasleak banatutako fitxak eta gelan egindako lanak.
- Marrazketako materiala.
- Folio batzuk ere sartu edo koaderno bat izan noiz behika hartu behar diren apunteentzako.

Marrazketako materiala: eskuaira, kartaboia, konpasa (bere tresnekin), arkatz biguna, arkatz gogorra eta borragoma.

Agenda

Sinadura  
Alaia Etayo Oronoz  
Larraintzarren 2019ko irailaren 9an